

49. ZENBAKIA. 2021

ELKARRIZKETA | **Idoia Calleja**. Basque Culinary Center - Gastronomi Zientzien Fakultateko
Kurtso eta Master Zuzendaria

**“10 urtetan nazioarteko
erreferente bilakatu garal”**

ATE IREKIAK

Unibertsitate Graduak

Eman izena!

www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak



**Learning
from reality**

Urteurren borobila

Basque Culinary Center zorioneko dago. Hamar urte igaro dira Donsotia inguruan eraturako lantalde batek gastronomiara espreski zuzendutako fakultate bat irudikatu zuenetik. Orduaz geroztik hainbat errokei erantzunez proiektu berritzaile ugari jarri dira martxan fakultatean, eta egindako lanaren ondorioz mundu mailako erreferentzia bilakatu da. Ibilbide honi erreparoa egiteko Idoia Callejarekin elkartu gara.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Etorkizunera begira

Basque Culinary Centerrek Mondragon Unibertsitatearen 2020-2021 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia hartu zuen. Ikastaro hau funtsezkotzat hartzen da unibertsitatea etorkizuneko gizartearen errokei aurre egiteko erreferentziazko posizioan finkatzeko. Ekitaldi honetan ordezkariak instituzional zabala izan zen, eta Vicente Atxa errektoreak erakundearen egoeraren argazki eguneratua egiteko balio izan zuen. Aurrez aurreko formakuntzaren itzulera sendotzeko balio behar duen ikastaro honetan, unibertsitateak erroka garrantzitsuak ditu, besteak beste ekintzailatza eta berrikuntza.



muniversitas aldizkariaren
49. zenbakia OSOA ikus
dezakezu gure webgunean.



muniversitas aldizkariaren
49. zenbakia EUSKARAZ ikus
dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder a la revista
muniversitas número 49 en
CASTELLANO en nuestra web.

HAZTEN DOAN ERAKUNDEA

Mondragon Unibertsitateak eskaintza berrituarekin ekin dio 2021-2022 ikasturteari, gero eta katalogo zabalagoa osatuz. Berrikuntza ardatz nagusitzat hartuta, unibertsitateak prestakuntza integralaren aldeko apustua indartu du. Erakundeak irekitako espazio berriak horren erakusgarri dira, Bilboko AS Fabrik modernotik hasi eta Urdulizko lankidetz-espazioetaraino. Mondragon Unibertsitatea hedapen betean dago, eta instalazio zein eta ikasle kopuruan hazten ari den

dira, batez ere masterren eta profesionalen zuzendutako eskaintzaren atalean. Horrela, fakultate bakoitzak bere katalogo zabalagoa zabaltzen du, sektore bakoitzaren eskaerei erantzunez, eta errealitate profesional berrira egokitzeko aukera emanez, bai lurralde mailan, bai nazioartean.

Aurtengo ikasturteari begira, berrikuntza nagusiak Basque Culinary Centerren eta Goi Eskola Politeknikoan abian jarritako master berrietan daude, digitalizaziorako eta teknologia berrietarako joera argiarekin. Bestalde, gradu eta masterrez gain, profesionalen zuzendutako prestakuntzak garrantzi handia hartu du Mondragon Unibertsitatearen eskaintzan, eta 2021-2022 ikasturtean asmo handiko prestakuntza plan bat egin da arlo horretan. Elkarlaneko proiektu ezberdinei esker, prestakuntzarako espazio berriak gehituko dira, ADEGI edo Urdulizko dorrea kasu. Horrela, unibertsitateak prestakuntza espazio berrietara egiten du jauzi, negozio-paradigma berrirantz doan erakunde gisa duen posizioa sendotuz.

Fakultate bakoitzak bere katalogo zabalagoa zabaltzen du, sektore bakoitzaren eskaerei erantzunez, eta errealitate profesional berrira egokitzeko aukera emanez

bezala, bere prestakuntza eskaintzak ere hala egiten du. 2021-2022 ikasturtearekin batera, unibertsitateak titulazio berrien lehen promozioak iritsi

Mondragon Unibertsitateak hazten jarraitzen du, eta 2022-2023 ikasturteari begira ere hala egitea aurreikusten du. Horretarako, bere katalogoan



Mondragon Unibertsitateko hainbat arduradunekin batera, Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu zuen ekitaldian, Basque Culinary Centerren.

2021-2022 ikasturtearen hasiera ekitaldia

BASQUE CULINARY CENTERREN ANTOLATU ZEN MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN IKASTURTE BERRIAREN HASIERA EKITALDIA. VICENTE ATXA ERREKTOREAK ERAKUNDEA ETORKIZUNEO ERRONKEI AURRE EGITEKO PREST DAGOELA AZALDU ZUEN.

Egin da 2021-2022 ikasturtearen hasiera ekitaldia, eta besteak beste Vicente Atxa errektorea, Idoia Peñacoba idazkari nagusia, Usune Etxebarria doktorea eta Iñigo Urkullu lehendakaria izan ziren ikasturtea abiatzeko arduradunak.

Ekitaldian azaldu zenez, martxan dagoen kurso akademikoak 6.000 ikasle baino gehiago ditu ikasketak ofizialetan matrikulatuta, horien artean, 5.255 graduako ikasleak direla, iaz baino %4,4 gehiago.

Normaltasunera itzultzeko ikasturtea

Vicente Atxa errektoreak bere hitzaldian unibertsitateak pandemia garaian formakuntza %100ean onlinera bihurtzeko egindako lana nabarmendu zuen. Hala ere, azpimarratu duenez, "hori ez da eskaini nahi dugun Mondragon Unibertsitatea". Horregatik, 2020-2021 ikasturtean abiatutako bidetik, aurten ere presentzialtasun handiko formakuntza eskainiko dela nabarmendu zuen. Bestalde, European eta Euskadin lidergoari eusteko dagoen erronkan, Atxak azaldu zuen Mondragon Unibertsitateak kalitatezkoa eta pertsonalizatua den unibertsitate-prestakuntza eskaintzeko konpromisoa duela, ekintzailtza eta berrikuntza bultzatuz. Zentzu honetan, Mondragon Unibertsitateak ahalik eta eragin ekonomikorik handiena sorraraziko duten proiektuen alde egiten jarraituko duela azaldu zuen errektoreak, Bilbao AS Fabrik, ELAB eta Ekintzailtzako Plataforma Digital Irekia aipatuz adibide bezala.

BCC-k hamar urte



Ikasturte hasierako ekitaldia Basque Culinary Centerren antolatu zen, Donostian kokatutako Gastronomía Zientzien Fakultatearen hamargarren urtemuga dela eta. Errektorearen hitzetan, "Mondragon Unibertsitatea harro dago Basque Culinary Center bultzatu izanaz", eta azpimarratu du zentroak hamar urtean mundu mailako erreferente bilakatzeko izan duen gaitasuna, "gaur egun 30 herrialde baino gehiagoko ikasleak jasoz". 10 urteko ibilbidean graduako, masterreko eta doktoregoko programak jarri dira abian Gastronomía Zientzien Fakultatean, profesionalentzako prestakuntzaz gain. Gauzak horrela, 2.000 ikasle edo sektoreko profesional baino gehiago trebatu dira han, eta 50 enpresa baino gehiagorekin aliantzak sortu dira.

MTA komunitate globala



Encuentro de leinners en el laboratorio de Irun.

400 IKASLEK HASI DUTE NAZIOARTEKO LEINN GRADUA IKASTURTE BERRIAREKIN BATERA, 23 TEAM COMPANY BERRI SORTUZ. BERRI HAUEKIN, GUZTIRA 74 COMPANY DAUDE MONDRAGON TEAM ACADEMYKO LABORATEGIETAN.

Enpresagintza Fakultatea | Team Company-ak LEINN Graduaren ikasketarako ibilgailuak dira, hazkunde eta eraldaketara bideratuak. “Team Learning by creating” lelopean, lehen astetik profil ezberdinetako 15 eta 18 pertsona arteko taldeak eratzen dira. Talde bakoitzak Junior Enpresa erakunde bat sortzeko egitekoa du, ekintzailtza proiektu errealean bitartez ikasketa prozesurako baliogarri izango dena. Proiektu hauek bezero ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen dute, hipotesiak egiaztatu, balio erantsia komunikatzen ikasi, inpaktu erreala neurtu eta baita fakturen emisioan sakontzea. Modu honetan, ikasleak hasieratik MTA eta LEINN metodologia barneratzen du, akzioa eta hausnarketa uztartuz.

2021-2022 ikasturteari begira, 400 etorkizuneko ekuntzailek hasi dute Nazioarteko LEINN Gradua, jada erronka ezberdinei aurre egiten hasiak diren 23 team company berri martxan jarritz.

Programa anitza

Graduaren lehen astean Welcoming ekintza ezberdinak antolatzen dira idealaborategi bakoitzean, lehen asteetako akzio plana antolatzen hasteko, norberak bere ikasketa prozesuaren ardura eskuratuz. Laborategi bakoitzean gaitegia etaongi etorriko ekintzak ezberdinak dira, nahiz

eta guztietan helburua berdina izan: laborategia eta laguntzaile taldearekin konektatu (tutoreak, Team Coach-ak, adituak...), inguruko ekosistema ezagutu, beste belaunaldi batzuekin saioak elkarbanatu, hurrengo lau urteetan biziko dutenaren kontzientzia hartu eta esperientzia honen lehen hilabeteetan desikasteko asko izango dutela ohartu.

Ondoren, hurrengo asteetan zehar, prozesuaren bi une esanguratsu biziko dituzte: Forest & Back, ikasketa eta ekintzailtza prozesuan izango diren taldeak eratzeko saioa, eta lehen Learning Journey-a.

Modu globalean ikasi

Abentura honen lehen asteetan lehen ikasturteko ikasketa bideak egiten dira, helburua kultura ezberdinekin konektatu eta arazo globalekiko kontzientzia hartzea dela, gero esparru lokalean jardun ahal izateko. Urte honetan Finlandia eta Berlin izan dituzte helmuga, baina hau hasiera baino ez da, ikasketa prozesuan zehar Bilbo, Seul edo Costa Rica bezalako tokiak ezagutuko baitituzte. Nazioarteko esperientzia hauetan, bertako kulturarekin konektatu eta proiektuak garatzeaz gain, beste laborategi batzuetan Team Companiekin bidaiatzen dute, norberaren zein taldearen ikasketa aberastuz.

STEMotiv: DBHko ikasleen artean STEM ikasgaiekiko motibazioa sustatzeko proiektua

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKERTZAILEEKIN BATERA, PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTE IKASLAN GIPUZKOA ETA VICOMTECH ERAKUNDEEK



Zumaienako ikasleak STEM proiektuan lanean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

|STEMotiv proiektuaren helburua (www.stem.eus) izan da DBHko ikasleen STEM ikasgaiekiko interesa eta motibazioa ulertzea eta horretan eragitea; eta derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen motibazioa piztea STEM ikasgaietan. Gainera, proiektuak arreta berezia jarri du nesken motibazioan. Proiektua gauzatu da DBHko hirugarren mailan ikasleen artean.

Prozesua parte-hartzailea izan da, eta bertan esku hartu dute bost ikastetxek, hala nola Mutriko BHI (Mutriku), Zumaiena (Zumaiia), Herrikide (Tolosa), Zubiri Manteo BHI (Donostia) eta Salbatore Mitxelena ikastola (Zarautz).

Prozedura dinamikoa

Ikertzaileek galdetegiak pasa zizkien DBHko ikasleei, eta hortik beraien interesak zeintzuk diren aztertu zituzten. Gero, STEM proiektu bati gauzatu zen ikastetxe bakoitzean. Proiektu horiek ikasgelara eramanez eta gero, berriro pasa zitzaizkien galdetegiak. Izan ere, asmoa zen ikustea ea halako egitasmoek eraginik duten ala ez motibazioan. Orokorrean, emaitzek azaleratu dute baietz: proiektu eragina positiboa dutela motibazioan.

STEMotiv proiektuan parte hartu dute Ikaslan Gipuzkoa eta Vicomtech erakundeek. Proiektu hau aurrera eramanez da Gipuzkoako Foru Aldundiko Talentua-ikaskuntza 2020 deialdiari esker.

Tupperren jasangarritasunaren buruzko ikerketaren emaitzak

JOAN MANUEL F. MENDOZA GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK PLASTIKOZKO TUPPERREN INGURUMEN-AZTARNA AZTERTZEN DUEN IKERKETA BATEAN PARTE HARTU DU. MANCHESTERREKO UNIBERTSITATEKO TALDE BATEKIN BATERA EGIN DA LAN HAU, EMAITZA INTERESGARRIAK ARGITARATU DITUENA.



Goi Eskola Politeknikoa | Joan Manuel F. Mendoza, Goi Eskola Politeknikoko Ikerbasque Research Fellow-a, material desberdinetako elikagai ontzien jasangarritasuna aztertzen duen proiektu baten parte izan zen. Ikerketa Manchesterreko Unibertsitateko Alejandro Gallego-Schmid eta Adisa Azapagic ikertzaileekin elkarlanean garatu zen, eta gaur egungo hondakinen krisiaren testuinguruan kokatzen da. Gaur egun, mundu osoan zehar zabortegeiek lan karga izugarria dute, eta geroz eta gehiago lehorrean zein itsasoan edo garapen bidean dauden

herrialdeetan isuritako hondakin kopurua geroz eta handiagoa da. Kontuan izanik elikagaien ontziratzea hondakinen iturri garrantzitsua dela, elikagai eta edari berrerabilgarrien ontzien industria garatzeko beharra sumatzen da. Mota honetako ontziek 2022 urterako 24 mila milioi euroko balioa izatea aurreikusuten da, 2019an 11 mila eurokoa zenaren bikoitza baino gehiago.

Berrerabili edo bota?

Ikerketan, aluminioaren, polipropilenoaren (PP) eta poliestireno estrusionatuaren (Styrofoam® edo EPS izenez ezagutzen dena) bizi-zikloaren inpaktua aztertu da, eta guztiak etxean ditugun elikagaiak biltegitatzeko erabili ohi diren polipropilenoazko ontziekin (tuppers izenekoak) alderatu dira. Emaitzen arabera, erabilera bakarreko elikagaien ontzien artean ingurumen-inpaktu txikiena duten ontziak dira GEPen ontziak. Horren arrazoi nagusia da ontzi horiek 8 g baino gutxiago pisatzen dutela, ia 32 g PP-ontziekin edo 15 g aluminio-ontziekin alderatuta. Are interesgarriagoa, erabilera bakarreko ontzien ingurumen-inpaktuak ontzi berrerabilgarrien inpaktuekin alderatzen direnean, emaitzek adierazten dute berrerabil daitezkeen ontziak 16 eta 208 aldiz erabili beharko lirakeela ingurumen-inpaktu guztiak konpentsatzeko.

Emaitzak

Eramateko janariaren industriaren testuinguruan, elikagaietarako ontzi berrerabilgarriak ingurumen aukerarik onena dira erabilera bakarreko ontziekin alderatuta; hala ere, i) ziurtatu behar da ontzi horien diseinuan erabilitako materialak ingurumen-inpaktu txikikoak direla, ii) ontzi berrerabilgarriak jaso, garbitu eta birbanatzeko azpiegitura egokia eduki behar da, iii) kontsumitzaileei ontzi berrerabilgarriak itzultzeko pizgarriak eman behar zaizkie, eta iv) hondakinak kudeatzeko sistema egokiak ezarri behar dira.



Cartel de la edición de este año.

Culinary Zinema, zinema eta gastronomia uztartzeko edizio berri bat

Basque Culinary Center - Gastronomi Zientzien Fakultatea | Donostiako Zinemaldiaren 69. edizioko Culinary Zinema sailak bost film eta afari tematiko eskaini zituen Basque Culinary Centerren. Irailaren 20an inaugurazio-afari batekin hasi zen Culinary Zinema, Las huellas de elBulli filmarekin alegia, Ferran Adriàren jatetxe iraultzailean lan egin zuten bi sukaldari-buru ohik (Eugeni de Diego eta Albert Raurich) eta Luis Arrufat elBulliko gozotegiko buruak prestatua.

Reinventing Mirazur dokumentalaren omenez lau eskutako afari bat eskaini zan, eta bertan parte hartu zuten Paulo Airado chef-ak, Amelia jatetxearen jabe eta sukalde burua, eta Venta Moncalvilloko Ignacio Echapresto sukaldariak. Horiez gain, Basque Culinary Centerreko baratz

proiektuaren arduradun den Leire Echaide eta honen produktu naturalek eta Carlos Echaprestok eskainitako Venta Moncalvillo upategiko ardoek presentzia nabarmena izan zuten.

Hirugarren gaua "Michelin Stars II: Nordic By Nature", Nature filmari eskainia egon zen. Bertan, Feroe Uhartetako (Danimarka) KOKS jatetxeko sukalde buru den Poul Andrias Ziskari esker lurralde honetako nortasuna eta iparraldeko sukaldea deskubritu ahal izan zen.

Irailaren 23an, The pursuit of Perfection filmaren proiektuaren ondoren, japoniar sukaldeko perfekzioa arakatzeko unea izan zen, Madrileko Ikigai Jatetxeko Yong Wu Nagahira, eta Basque Culinary Centerreko Cristina Lirola gozogi-learen eskutik.

Euskarazko haur eta gazteentzako liburu gomendagarrien gida

LIBURUXKAK AZTERTU ETA SAILKATZEN DITU 2019-2020 URTEETAN ARGITARATUTAKO 343 LIBURU. UNIBERTSITATEKO WEBGUNEAN DAGO ESKURAGARRI.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiak sarean jarri du Haur eta gazte literatura irakur gida 2019-2020. Liburuxkak 102 orri ditu eta, bertan, haur eta gazteei zuzendutako 343 liburu aztertu eta sailkatu dituzte. 1990. urtetik hasita, urtero argitaratzen dute gida. Unibertsitateko webgunean dago eskuragarri.

Ikerketa lanaren emaitza

Gidaren hitzaurrean dioten moduan, 2019-2020ko gida "talde baten lan jarraituaren eta liburu askoren irakurketaren emaitza da. Guraso, irakasle eta bibliotekariatzat lagungarri izan nahi du". Lan egiteko moduari dagokionez, zera diote: "2019-2020 urteetan euskaraz publikatu dena irakurri dugu, gure irakurketak kontrajarri ditugu eta hizkuntzaren erabilpena, kalitate literarioa eta gaiari ematen zaion tratamenduaren arabera, besteak beste, baloratu ditugu". Liburu zerrenda orokorraren ondoren sailkapen bat egiten da: liburu gomendagarriak eta oso gomendagarriak. Azken horiei erreseina bat gehitzen zaie. Gida hau egiteko, haur eta gazte literaturarekin lotutako 13 lagunek hartu dute parte, tartean, liburuzainak, eskoletako irakasleak eta fakultateko adituak.



2019-2020 urteetako gidaren azala.

Enpresagintza Fakultateak talentuaren aldeko apustua egin du

300 IKASLE BERRI INGURUK HASI DUTE BERAIEEN IBILBIDEA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO KUDEAKETA ETA DATUEN ALORREAN, GRADU ETA UNIBERTSITATE MASTERRETAN BANATURIK.

Facultad de Empresariales | Kudeaketa eta datutara zuzendutako profil hauek gaur egun eskari handia dute arlo profesionalen, eta etorkizunera begira ere horrela izaten jarraituko duela ematen du. Horregatik, Enpresagintza Fakultatea enpresen bidelagun bilakatzen da arlo honetara bideratutako den talentuaren sorkuntza eta garapenean.

Enpresen laguntzaile

Kudeaketaren alorrean zehatz-mehatz Oñati, Irun eta Bilbao As Fabrikeko campusetan hasi dute jarduna myGADE DUAL graduko ikasleek - Enpresen Kudeaketa eta Zuzendaritza Gradua. Hauek gain, graduatuak nazioartekotza, pertsona eta talentuaren kudeaketa, kontabilitate eta finantza kudeaketa eta marketing digitala bezalako gaietan espezializatzeko masterrak ere martxan jarri dira.

Azkenik, datuen alorrari dagokionez, Bilbao As Fabrik-era iritsi da Business Data Analytics gradu berriaren ikaslegoa, eta datorren ikasturteari begira Bilbon gai honen inguruko unibertsitate master bat martxan jartzea aurreikusten da.

Teknopolisek denboraldia estreinatu du Mondragon Unibertsitatearekin batera



Presentación del programa 'Teknopolis' en Mondragon Unibertsitatea.

Goi Eskola Politeknikoa | *Teknopolis*-en 24. denboraldiaren aurkezpena Mondragon Unibertsitatean egin zen, Garaia parke teknologikoaren instalazioetan. Irailean estreinatu zen ETBn *Teknopolis* saioaren denboraldi berria, eta aurtien ere Mondragon Unibertsitateak hartuko du parte. Programak Euskal Herriko eta mundu osoko berrikuntza, teknologia eta informazio zientifikoa hurbiltzen dizkigu, eta, horretarako, Goi Eskola Politeknikoan egiten diren ikerketa eta transferentzia proiektuak izango dituzte. Programaren denboraldi berri honetan, gure unibertsitateko ikertzaileak egiten ari diren proiektuei buruzko hainbat erreportaje emango dira.

Emisio elebiduna

Teknopolis larunbatetan izaten da ikusgai, 13: 30ean, ETB1en, eta igandeetan, ordu berean, ETB2n. Saioa berriz ere publikoaren jakinmina asetzeko prest dago eta astero 30 minutuko informazio interesgarria eskaini nahi du. Goi Eskola Politeknikoari dagokionez, urrian zehar ikasturteko lehen erreportajea argitaratu zen. Erreportaje horrek Parkinsona detektatzen laguntzen duen proiektu bat erakusten zuen, eta Biocruces institutuarekin lankidetzan gartzen ari da.

Silver Economyrako ekintzailletza bultzatzeko masterra

SILVER ECONOMY OSATZEN DUTEN PERTSONEN BIZI-KALITATEA BERMATUKO DUTEN IDEIAK ETA MERKATU-NITXOAK IDENTIFIKATZEKO PROFESIONALAK TREBATUKO DITU MASTER BERRIAK.



Adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko proiektu ezberdinak sustatu behar dira.

Goi Eskola Politeknikoa | EAEn, aurreikuspenen arabera, 2031rako biztanleriaren % 46 baino gehiago 55 urtetik gorakoa izango da, eta Europan, 2025erako 88 milioi herritar baino gehiago egongo dira adin horretatik gora. Datu horiei esker, bi ondorio nagusi atera daitezke: batetik, garrantzitsua dela proposamen eta konponbide berriak lantzea, zahartze-prozesua hobetu ahal izateko fase goiztiarrenetatik; bestetik, premiazkoa eta lehentasunezkoa dela proposamen eta irtenbide berriak lantzea, adinekoei eta haien ingurukoei bizi-kalitate ona bermatzeko.

Goi Eskola Politeknikoak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Nagusi Inteligente Centre-rekin lan-kidetzan, Silver Economyrako Ekintzailletza Teknologikoko Masterreko lehen promozioa abiarazi du. Masterrak bederlatzi hilabeteko iraupena izango du, 2021eko azaroan hasi da, eta Urdulizen emango da, semipresentzial formatuan.

Programa honekin espezializatzen diren pertsonak berrikuntza-prozesuak errazteko, funtsezko beharrak identifikatzeko eta horiek balio-proposamen bihurtzeko trebatuko dira. Produktu berriak eta adinekoentzako zerbitzu erakargarriak sortu ahal izateko arlo hauetan, adibidez: gizar-te-harremanak, kirola, aisia eta bidaiak; gailu ortoprotesikoak edo medikoak; telelaguntza, etxeko arreta integrala, sentsoreak eta gailuak; elikadura osasungarria, app-ak eta ingurune atseginak; eta pentsioak eta aurrezkiak.

Masterrean parte hartu ahal izango dute arlo soziosanitarioko pertsonak, ingeniartzako tituludunek edo enpresa-kudeaketaren arloko profesionalak.



Xanty Elias sukaldari espainiarrak irabazi du Basque Culinary World Prize 2021 saria.

Xanty Elias, 2021eko Basque Culinary World Prize

XANTY ELÍAS CHEF-AK IRABAZI DU 2021EKO BASQUE CULINARY WORLD PRIZE GAZTEEN ELIKADURA HEZIKETAN SAKONTZEKO EGINDAKO LANAGATIK

Basque Culinary Center - Gastronomi Zientzien Fakultatea | 'Los Niños se Comen el Futuro' ekimenaren bitartez gazteen elikadura heziketan sakontzeko egindako lanagatik izendatu dute 2021eko Basque Culinary World Prize Xanty Elias chef espainiarra. 2018tik martxan dagoen proiektu honek kultura gastronomikoko ikasgai bat lehen hezkuntzako eskoletan sartzearen alde egiten du, sukaldaritzaren eta kontsumo kontzientzaren inguruko kulturaren hezteak duen garrantziaz konbentziturik.

Prenauta Fundazioak sukaldaritzaren sektorean turismoaren, berrikuntzaren eta ekintzailtzaren aldeko apustua egiten du, baina, batez ere, eskola-adinean dauden haurren elikadura-hezkuntza sustatzearen alde. Horrek sukaldaritzaren inguruko osasun-baldintza, kontsumo kontzientzia eta kultura hobekuntza garatzeko duen ahalmenaz konbentziturik ageri da chef-a. Aurretiazko lan guzti hori inspirazio iturri izan da " Los Niños se Comen el Futuro " ekimena abian jartzeko, eta horregatik jaso du Eliasek saria Basque Culinary Centerren eskutik. Programa hau Andaluziako 80 ikastetxe ingurutan dago martxan. Bertan, lehen hezkuntzako 15.000 ikasle inguruk eta eremu apaletako 25 ikastetxe bekadunek parte hartzen dute. Pre-

nauta Fundazioak gidatutako kultura gastronomikoko hezkuntza proiektu hau aitzindaria da, eta Espainiako elikadura osasungarrian hezteko irakasgai gisa hartzen da, Kultura Gastronomiko Solidarioa zeharkako irakasgaia sustatuz. Proiektuaren helburu nagusia gazte zein heldu mahai baten inguruan partekatzen diren une berezietan jabetzea da.

Gastronomiak eraldatzeko gaitasuna du
Irabazle bat izendatzeaz gain, Basque Culinary World Prizek veste bi aipamen egin nahi izan zituen. Egungo erronkak ikusarazteko eta ekintzaileak diren zein bikaintasunerako bokazioa dutenen chef-en profilak identifikatzeko interesa berretsiz, beraien komunitatearekin konprometitua dauden eta berritzaileak, sortzaileak eta tematiak ere badirenak aitortzea egokitzat erabaki zuen epaimahaiak. Hori dela eta, epaimahaiak beste bi chef saritu nahi izan zituen, aipamen berezi hauek Kia Damoni (AEB) eta Ana Estrela (BRASIL/ITALIA) emanez. Lehenak berdintasunaren aldeko borroka bultzatzen du, bigarrenak aldiz sukaldaritzaren pertsonak gizarteratzeko tresna bezala erabili ohi du.

3 LEINNeR ‘Top 10 Women Leaders Under 30’ zerrendan

SONDERSLAND-EK GARATZEN DUEN ZERRENDAK GLORIA GUBIANAS, SARA BACEIREDO ETA ANDREA MARTÍNEZ ENPLEGU, HEZKUNTZA ETA ENTRETENIMENDUAREN GAUR EGUNGO PARADIGMAN INFLUNETZIADUN PERTSONA BEZALA AITORTZEN DITU.

“Emakume batek exekutibo maila eskuratu ahal duela sentitzeko eredu ezberdinak ikusgai izan behar ditu enpresa mailan”

Gloria Gubianas



Gloria Gubianas, Sara Bacereido eta Andrea Martínez.

Enpresagintza Fakultatea | Sonderslandek garatutako “Top 10 Women Leaders Under 30” zerrendak beraien lan eta ikusgarritasunagatik estereotipoak eta etiketak hausten dituzten 10 emakume lider jasotzen ditu. Tradizionalki gizonezkoei egokitzen zitzaizkien lanpostuetan panorama aldaketa bat eragin duten emakume hauen artean 3 LEINNeR aurkitzen ditugu. Gloria Gubianas (Hemper Handmadeko sortzaileetako bat), Sara Bacereido (Its Lavako sortzaileetako bat) eta Andrea Martínez (Teamlabs-en LEINN graduko zuzendarikidea) dira hauek.

“Top 10 Women Leaders Under 30” zerrendan dauden beste zazpi emakume gazteak hurrengoak dira: Inés María Martínez Bragado eta Irene Campo Frías (Farma Leaders Talento-rens sortzaileak) Maria Martinez Romero (Dow Jones Newswires-en ekonomi erreportaria), Alejandra Acosta (gizarte-ekintzailea), Elsa Arnaiz Chico (Etorkizunerako Talentuaren presidentea eta zuzendaria), Elena Audi Llopert (datu analista), Laura Martín Torruella, (Ayúdame 3D-ko sortzaileetako bat) eta Koro López de Uralde Castellano (No time-ko sortzaileetako bat eta marka eta marketin ekologikoan aditua).

Etorkizuneko emakume ekintzailearen papera definituz

Women leadres panelean zenbait gaztek hartu

zuten parte. Ayudame 3D-ko sortzaileetako bat den Laura Martinek emakumeek ikusgaitasun handiagoa izan dezaten faktore garrantzitsuenetako bat sororitatea dela aipatu zuen, eta guztien artean elkarri laguntzeko prest egotea ezinbesteko dela gizonekin lotutako sektoreetan aurrera egitea lortzeko. Adibide garbitzat jarri zuen sektore teknologikoa, bertan gaur egun postruik garrantzitsuenak gizonezkoen esku baitaude.

LEINNeKo zuzendari den Andrea Martínez adostasuna erkutsi zuen puntu honetan, eta bere ustez etorkizuneko ekintzaileei bidea irekitzeko beharrezkoa da emakumeei ikusgarritasuna ematen dien proiektuak babestea, eraldaketarako erraztasunak emanez. Zentzu honetan, Gloria Gubianasentzat emakume batek exekutibo maila eskuratu ahal duela sentitzeko eredu ezberdinak ikusgai izan behar ditu enpresa mailan.

Sororitatea

Sororitatea emakumeentzako etorkizun bat eraikitzeko tresna nagusitzat hartzen da. Alejandra Acostak gizarte ekintzaileak argitzen duenez, egoera okerrean dauden emakumeak beraien burua ordezkaturik sentitzeko emakumeek bultzaturiko proiektuei babesa eman behar zaie.

‘Conexão Mundo’ programa Brasilgo hezkuntza arloko profesionaleri zuzendutako prestakuntza

BRASILGO PARAÍBAKO HEZKUNTZA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO ESTATU IDAZKARITZAK ESKATUTA, ARLO EZBERDINAK JORRATZEN DITUZTEN IKASTAROAK ESKAINIKO DIRA.



Online eskaintako saio sinkrono bat.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Brasilgo Conexão Mundo programan parte hartuko du, Paraíba Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia Estatu Idazkaritzak eskatuta. Programa honi esker, herrialde horretako hezkuntza arloko 60 profesionalak formazio espezifikoak jasoko dute 2021-2022 ikasturtean online modalitatean.

Hiru gai zabaletan dago banatuta eskaintza: gastronomia eta ostalaritza, ingurumena eta energiak eta hezkuntza kooperatiboa. Arlo bakoitza lantzeko, ikastaroetan lankide dira Mondragon Goi Eskola Politeknikoa eta Basque Culinary Center.

Hiru ikastaro abian

Hezkuntza pedagogikoan gastronomia eta ostalaritzako Lanbide Heziketako irakasleentzat. Ikastaro honetako parte-hartzaileek jasoko dute hezkuntza-berrikuntzaren esparruko prestakuntza teoriko eta praktikoa.

Hezkuntza pedagogikoan ingurumen, jasangarritasun eta energien Lanbide Heziketako irakasleentzat. Ikastaro honetako parte-hartzaileek ere jasoko dute hezkuntza-berrikuntzaren esparruko prestakuntza teoriko eta praktikoa.

Hezkuntza kooperatiboan. Programa honek aukera emango die parte-hartzaileei ezagutzeko, hausnartzeko eta inplementatzeko ikaskuntza kooperatiboaren gakoetan.

TITULAZIOAK

Eskaintza akademiko anitzagoa

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BERE ESKAINTZA AKADEMIKOA EGUNERATU DU IKASTURTE BERRIAREKIN BATERA. BARNE PROZESUETAN ETENGABEKO BERRIKUNTZA APLIKATUZ PRESTAKUNTZA AHALIK ETA MODU INTEGRALENEAN ESKAINTZEA DU HELBURU ERAKUNDEAK.

2020-2021 ikasturteak goi mailako hezkuntzarekin, ikasleekin eta oro har gizartearekin duen konpromisoa berritzeko parada ekarri du Mondragon Unibertsitateak, eta garai berriei erantzuteko erronka ezberdinak ezarri ditu erakundeak. Konpromiso honi jarraiki, unibertsitateak zehaztutako erronka nagusietako bat gazteentzat kalitatezko ikaskuntza integrala sustatzea da, ikasleak gizartea eraldatzeko eragile aktibo eta eraikitzaile izan daitezen, horretarako balioak landuz. Testuinguru horretan, unibertsitateak paper aktiboa betetzen du talentu gaztearen prestakuntza eta bizialdi osoko profesionalen birkualifikazioan besteak beste.

Horretarako, 2021-2022 ikasturteari begira Mondragon Unibertsitateak bere formazio eskaintza berritu du gradu, master eta profesionalen zuzendutako eskaintzan.

Lehen promozioak martxan

2021-2022 ikasturtearen hasierarekin batera titulazio berrien lehen promozioak iritsi dira unibertsitateak, bereziki masterren eta profesionalen zuzendutako eskaintzaren atalean.

Gizartearen errealitate berriari egokituz, azken urteetan gastrono-

miaren sektoreak izan duen gorakadak profil espezializatuen eskaera areagotu du, eta honi erantzunez Gastronomiako Irakasle Prestakuntza Unibertsitate Masterra eta Komunikazioa eta Kazetaritza Gastronomikoko Unibertsitate Masterrak martxan jarri dira. Lehena 100% online eskaintzen da eta 60 ECTS kreditu ditu. Honen helburua gastronomiaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko oinarri pedagogiko eta didaktiko sendoa duten profesionalak prestatzea da, pentsamendu

“

Unibertsitateak zehaztutako erronka nagusietako bat gazteentzat kalitatezko ikaskuntza integrala sustatzea da, ikasleak gizartea eraldatzeko eragile aktibo eta eraikitzaile izan daitezen.

kritikoa garatuz gastronomiako irakaskuntza-ikaskuntzako testuinguru eta prozesuak ezagutu, irakaskuntza funtzioaren gaitasunekin gastronomiako ikaskuntza erraztu eta hezkuntza proiektu berritzaileak diseinatu eta garatzea da. Kazetaritza Gastronomikoko Unibertsitate Masterrak aldiz formakuntza online eta presentziala uztartzen ditu, 6 hilabeteko online moduari Basque Culinary Centerren burutuko den hilabeteko egonaldiak jarraitzen baitio, 3 hilabeteko praktikaldiarekin bukatuz. 60 ECTS-ko master honen helburua kazetaritzaren eta komunikazio gastronomikoaren arloan espezializatutako profesionalak prestatzea da, eduki eta ekimen gastronomikoak diseinatu, ekoiztu eta sustatzeko gaituz.

Teknologia ere etengabeko eguneratzea eskatzen duen alorra da, eta honi erantzunez jarri dira martxan Silver Economy Ekintzailerak eta Hidrogeno Teknologietako Unibertsitatearteko Masterra, biak 60 ECTS-koak eta erdipresentzialak. Silver Economy Ekintzailerak eta Hidrogeno Teknologietako Masterrak online ikaskuntza eta Urduliz Dorreko Nagusi Intelligence Center-en (NIC) emango den formazio presentziala uztartzen ditu. Nagusien etorkizuna hobetzeko orainaldiko erantzun bezala aurkezten da, eta erantzun hau eskaini ahal izateko Silver Economyan oinarritutako enpresa, produktu eta zerbitzuak garatzeko konpetentziak lantzen ditu. Hidrogeno Teknologietako Unibertsitatearteko Masterra ordea, Mondragon Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Universitat Politècnica de Catalunya, Universitat Rovira i Virgili eta Zaragozako Unibertsitatearen arteko elkarlanean garatzen da. Master honen helburu nagusia industriaren hidrogenoaren teknologien garapena bizkortzea da, horretarako baliabide egokiak eskainiz.

Profesionalen zuzendutako kurtsoak ere garrantzia handia hartu du Mondragon Unibertsitatearen eskaintzan. Zentzu honetan, 2021-2022 ikasturtean hurrengo lehen edizioa eskaintzen da.

ESKAINTZA BERRIA

PROFESIONALENTZAKO
5 KURTSO.
4 MASTER
ESPEZIALIZAZIO
EZBERDINAK

BASQUE CULINARY CENTER

Gastronomiako Irakasle
Prestakuntza
Unibertsitate Masterra
Komunikazioa
eta Kazetaritza
Gastronomikoko
Unibertsitate Masterrak

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Gastronomiako
Irakasle Silver
Economy Ekintzailerak
Teknologietako
Masterra eta Hidrogeno
Teknologietako
Unibertsitatearteko
Masterra

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Teknologia eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak espezialitateak irakasle gisa aritzeko unibertsitate masterra, Ikus-Entzunezko Gradua DUAL formatuan eta Psikomotrizitate, Entzumena eta Mintzaira eta Berrikuntza Digitala aipamenak Hezkuntza graduan.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

Marketing Data Analytics kurtsoa eta Aliantza Operatiboen diseinurako kurtsoa bestelako espezializazio batzuen artean.



- **Zibersegurtasun Industrialeko kurtsoa:** Online eskaintzen den kurtso honek partaideak segurtasunean sortzen diren arazoaren aurrean proaktiboki erantzuten trebatzen ditu, eskuragarri dauden protokolo eta teknologia erabiliz.

- **Industria Enpresen Eraldaketa Digitalerako kurtsoa:** Arrasaten modu presentzian edo online formatuan eskainiko da kurtso hau. Helburua enpresen digitalizazioaren eremuko beharrei erantzuten erantzen ahal izatea da, horretarako sektore industrialeko paradigma aldaketa kudeatzeko beharrezkoak diren kontzeptuak jorratuz.

- **Industriatik Silver Economy-rako Data Science kurtsoa:** Urdu-lizen eskainiko da erdi-presentzial formatuan, eta bertaratuak proiektu osoak diseinatu eta zabaldu ahal izan ditzaten datuak aztertzeko gai izatea bilatzen du, horretarako Python 3 programazio hizkuntza erabiliz.

- **Lanaren etorkizunerako pertsona, kultura eta talentu kurtsoa:** ADEGIren egoitzan eskaintzen da, Donostian, eta partaideek beraien erakundeetan pertsonak kudeatzeko estrategiak diseinatzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskura ditzaten



2021-2022 ikasturtearen hasierarekin batera titulazio berrien lehen promozioak iritsi dira unibertsitatera, bereziki masterren eta profesionalen zuzendutako eskaintzaren atalean.

du helburu, horretarako lanaren etorkizunerako tendentziak kontuan izanik.

- **Marketing Data Analytics kurtsoa:** Marketin, Salmenta eta Bezeroen arloko profesionalen intsigentzia ezberdinetatik abiatuz negozio abantaila lehiakorrek eskuratzen lagunduko dien kurtsoa.

- **Aliantza Operatiboen diseinurako kurtsoa:** Partaideei partner estrategikoekin lankidetzan esperientziak diseinatzeko sistematika bat ematera bideratuta dago, berriazko proiektu testuinguru batean edo negozio aukeraren prospekzioarako.

Berrietasunez osatutako eskaintza

Etengabeko berrikuntza lerro estratetikoa da Mondragon Unibertsitatearen jardunean, hau bere eskaintza akademikoan aplikatzen duelarik. Gauzak horrela, martxan dagoen ikasturtean aurretiaz katalogoan zeuden zenbait titulak berrietasun ezberdinak aurkeztu dituzte. Horietako bat da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra. Master honek espezialitate berri bi gehitu ditu bere eskaintzara, Teknologia eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak. Espezialitate berri bi hauek online eta Bilbao AS Fabrik espazioan eskaintzen dira, euskaraz. Master honek etorkizuneko irakasleak formatzea du helburu, eta espezialitate bi hauek aukera hau irekitzen dizkie Teknologia eta Humanitate zein Gizarte Zientzietan unibertsitatea titulatuak dituztenei.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak beste berrietasun garrantzitsu bat aurkezten du, 2021-2022 ikasturtetik aurrera Ikus-Entzunezko Gradua DUAL formatuan eskaintzen baita Aretxabaletako Campusean, bi urteko iraupena duten bi ziklotan bananduz gradua. Lehen zikloa ikus-entzunezko sorkuntzan zentratuko da, bigarrean komunikazioaren arloko gainontzeko esparruak landuz.

Horrez gain, Eskoriatzako fakultatean eskaintzen diren Hezkuntza graduetan Psikomotrizitate eta Entzumen eta Mintzaira aipamenak eskuratu ahal izango dira, ikasleak haurren beharrezko konpetentziak jasoko dituelarik. Bestalde, Bilbao AS Fabriken ere aipamen berri bat eskaintzen jarraituko da, Berrikuntza Digitala, eta bertan ikasleek irakasleentzako auzoak digitalak garatuko dituzte irakaskuntzan eta ikaskuntzan berrikuntza-prozesuak abian jarri ahal izateko.

Etorkizun oparoa

Martxan den ikasturtean aurkeztutakoez gain, 2022-2023 ikasturtera begira eskaintza akademiko osatzeko lanean ari da Mondragon Unibertsitatea. Gauzak horrela, datorren ikasturtean gradu berri bat estreinatuko du, Fisika eta Matemati-

ko Ingeniaritza Gradua, AS Fabriken eskainiko dena, ikasleak etorkizuneko erronka teknologikoei aurre egiteko prestatuz. Fisika eta Matematikan ingeniariak oso profil moldakor eta balioaniztuna izango du, oinarriko zientzien ezagutza sendoarekin garapen teknologikoak burutzeko azken berrikuntzetan oinarrituz.

Masterren eskaintza zabaltzea ere aurreikusten da datorren kurtsoa begira, hiru titulazio berri matrikulatzeko aukera emanez. Orona-Ideo campusean Energia Sistema Adimentsuen Unibertsitate Masterra jarriko da martxan, energia sistemetan sakontzeko asmoa izango duena, eta DUAL formatuan burutzeko aukera eskainiko duena. Arrasateko campusean Eragiketa Logistiko Produktiboen Zuzendaritza Unibertsitate Masterra abiatuko da, enpresek testuinguru ekonomiko berri

aurre egin behar dieten funtsezko erronkei erantzutea bilatuko duena, ekoizpen baliabideen eraginkortasun handiena modu jasangarrian lortzen delarik. Azkenik, Bilbao AS Fabriken Negozio Adimena edo Business Analyticserako Datu Analisisien unibertsitate Masterra estreinatuko da, honen helburu nagusia adimen analitiko hainbat negozio-eremutan eraginkortasunez aplikatzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta gaitasunak eskaintzea izanik.

Bestalde, Ikaskuntza eta Garapen Ekosistemen Lidergoa programa eskainiko da Blended plataforman, prestakuntza eta garapeneko eremuetako arduradunei zuzendua egongo dena, beraien konpetentzia eta gaitasunen garapenerako.

Titulazio berriez gain, datorren ikasturteak berrikuntzak ekarriko ditu jada martxan dauden titula-

zioetan. Adibide deigarri bezala, Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa Unibertsitate Masterrak egoitza berri bat gehituko dio bere programari, Teamlabs-ekin batera Bartzelonan eskainiko baita giza baliabideen arloko tituludunei zuzendutako master hau.

Ikusten den bezala, berrikuntzak ez du etenik Mondragon Unibertsitatean, eta inguratzen gaituen erronkei aurre egiteko modu berriak etengabe bilatze horretan, unibertsitatearen eskaintza akademiko osatuz doa, bertako ikasle zein profesionalen profila osatuz.

“
Berrikuntzak ez du etenik Mondragon Unibertsitatean

EN

A MORE VARIED ACADEMIC OFFER

MONDRAGON UNIBERTSITATEA UPDATES ITS ACADEMIC CATALOG

The 2020-2021 academic year has given Mondragon Unibertsitatea the opportunity to renew its commitment to society. One of its main challenges is to promote quality comprehensive learning so that students are active and constructive agents in the transformation of society, cultivating values to achieve it.

With an eye on the 2021-2022 academic year, Mondragon Unibertsitatea has redesigned its catalog of degrees, masters and training courses aimed at professionals.

First of all it has launched new masters in gastronomy: Master in Gastronomy Teacher Training and Master in Gastronomy Journalism; and in technology: Master in Technological Entrepreneurship for the Silver Economy and Interuniversity Master in Hydrogen Technologies.

Apart from degrees and masters, Mondragon Unibertsitatea has expanded its training for professionals with the following courses:

- Industrial cybersecurity
- Digital transformation in industrial companies
- Data Science from Industry to Silver Economy
- People, culture and talent for the future of work
- Marketing Data Analytics
- The design of operational alliances

A catalog full of nuances

Within the framework of this current year already underway, some degrees already in the catalog now offer

some new features. One of them is the Master's Degree in Teaching Qualification, which offers two new specialties: Technology and Humanities and Social Sciences.

The Faculty of Humanities and Education Sciences has also presented an important update: starting this 2021-2022 academic year, the Degree in Audiovisual Communication is offered on the Aretxabaleta campus as a DUAL format: the first semester focuses on audiovisual creation, and the second in the field of communication.

In addition, the Education degrees now offer certificates in Psychomotor skills, Hearing and Language

Fertile future

Looking ahead to 2022-2023, Mondragon Unibertsitatea is working to round off its academic offer. To begin with, the next course will premiere the Degree in Physical and Mathematical Engineering, where the physical and mathematical engineer will receive a very flexible and multidisciplinary profile.

The catalog of master's degrees for the coming year is also growing: Master's Degree in Intelligent Energy Systems, Master's Degree in Management of Productive Logistics Operations, Master's Degree in Business Intelligence or Data Analysis for Business Analytics.

To this we can add the Blended platform's offer of the Leadership in Educational and Development Ecosystems program, aimed at those responsible for training and development areas to promote their skills and abilities.

DATUAK: ESTRATEGIARIK GABE, ZIENTZIARIK EZ

Belén Muñiz Villanueva. Mondragon Unibertsitateko Business Data Analytics Graduko Koordinatzailea



Enpresen errealitatea pixkanaka aldatzen ari da pandemiaren ondorioz. Duela bi urte hastapenetan zeuden joerak abiadura handian egonkortu dira. Erabateko esperientzia, loB (portaeraren Internet), zibersegurtasuna edo hiperautomatizazioa dira Gartner aholkularitza-enpresa ospetsuak 2020ko urrian argitaratutako artikulu batean aipatzen dituenetako batzuk. Erreferentzia asko daude argitaratuta, eta datu horiek ere korrante horietako bat dira, baina ondo hausnartzen badugu, ez al dago daturik aurreko joeretako edozeinetan?

Nire aburuz, datuak lehen aipatutako balio-proposamen guztiak elikatzen dituen garau edo gasolina dira, eta ezaugarri horretan datza hauen balio nagusia. Datuen kudeaketak zeharka eragiten die enpresaren eremu guztiei. Zenbat eta balio handiagoa atera norberaren datuetatik, orduan eta automatizazio hobea garatu ahal izango dira, esperientzia hobea sortuz bezero edo langileengan. Horretarako, planteamendu hau egin behar dugu: nola optimizatu dezaket nire datuek azaleratzen duten informazioa?

Aurreko galderari erantzutea ez da erraza, ez dira begi-bistakoak datuen zientzian txertatutako ezagutza-eremuek ekar ditzaketen irabaziak. Datu gehiagok lagunduko al didate iragarpenak hobeto egiten edo eraginkorragoak izango da nire ahalegin mugatuak kalitate handiagoko datuak eskuratzera bideratzea? Hain handia al da algoritmo erraz batek ematen duen emaitzan dagoen aldea, eraikuntza eta ulermen zaileko beste algoritmo baten aldean? Ala datuak denbora errealean eskuratzean dago gakoa? Sentitzen

dut nire erantzuna ez bada esperotakoa, baina aurreko galderentzat erantzun baliagarri bakarra dago: egoeraren arabera.

Aurreko erantzunak sortu ahal izan duen etsipena apur bat leuntzeko, hau argitu eta ñabartzen saiatuko naiz. Datuen zientziak azken urteotan izan duen ezta eta, batez ere, zenbait porrotek, ikasteko balio izan digute. Korporazio analogiko handiek egin behar izan duten bilakaerak eta player digital berrien oinarri diren negozio-ereduek erakusten digute funtsezko gakoak bi direla: negozioa eta estrategia.

Negoioarekin hasiko gara. Oso ohikoa da eraldaketa digitaleko proiektuen lidergoa teknologia eremuetara bideratzea enpresetan. Egia da, gero eta gehiago, teknologia funtsezko motorra dela negozioaren garapenean, baina egia da ere auto bat ez dela helmugara iritsiko zilindrada handiko motorra duelako soilik. Garraibide orok, autonomoek barne, helmuga zein den definituko duen gidari bat behar dute, helmuga honetara iristeko ibilgailuaren egoera egokia dela berrikusiko duena. Enpresa baten antolakuntzan, eginkizun horiek negozio arloei esleitzen zaizkie, eta hauek dira datuak kudeatzeko estrategia gidatu eta kudeaketa horrek enpresarentzako sor dezakeen balioa jakinaraziko dutenak. Horrela, datuen zientziak arlo funtzionalenei eskaintzeko dutena ulertarazteko ahaleginak bateratzea funtsezkoa da, helburu horiekiko ikuspegia eta ahalegina lerrotzeko.

Jarraitzeko, strategiak eskaintzen dituen gakoetan sakonduko dugu. Eremu estrategikoaren (negozioaren) ardura da zer egin nahi

den eta nola egingo den definitzea. Lehen urratsa Inbertsio horri etekina ateratzeko moduei buruzko hausnarketa sakon bat egitea izango da. Planteamendu hau, enpresaren heldutasunaren ebaluazio batez gain, izango da helburuak lortzea ahalbidetuko duen ibilbidea zehazteko abiapuntua. Plan honen barne, epe laburrean balio erreala lortzea ezinbestekoa da atsekabea saihesteko, baina kontuan izan behar da egiten diren inbertsioak eta garapenak epe luzeko helburuekin lerrotatu behar direla.

Edukia zehaztu eta ordenatu ondoren, honen trataeran izango zaigu lagungarri azken urteotan eskuratutako esperientzia. Horretarako, datu-zientziaren barruko diziplina den datuen gobernantzak ordezkatu beharreko rol, erantzukizun eta prozedurak ezarriko ditu, errentagarritasuna bilatze aldera. Datuen gobernantzaren eginkizun nagusia prozesua gainbegiratzea da, enpresak datuen kudeaketan ikuspegi orokorra eta bakarra lortu eta datuekin zerikusia duten erabakiak arrakastatsua izateko beharrezkoak diren prismak kontuan hartuz.

Azaldutako guztiarekin, argi geratzen da enpresa baten datuen kudeaketan arrakasta lortzeko gakoak aurretiaz aplikatutako bestelako berrikuntzen antzekoak direla: negozio-ikuspegia, estrategia eta lana. Eremu teknikoari beldurra galdu behar zaio, eta profil teknikoari ulertarazi behar zaie non eskaini dezaketen balio erantsia. Errezeta sinple honekin, arrakasta ziurtatuta dago!



“10 urtetan nazioarteko erreferente bilakatu gara”

Idoia Calleja

Basque Culinary Center - Gastronomi Zientzien Fakultateko Kurtso eta Master Zuzendaria

ABIAN JARRI ZENETIK, BASQUE CULINARY CENTERREK ETENGABEKO HAZKUNDEA IZAN DU, ARLO AKADEMIKOAN, IKERKUNTZAN EDO SEKTOREAREN SUSTAPENEAN. HAMAR URTE GEROAGO, FAKULTATEA GASTRONOMIAREN NAZIOARTEKO ERREFERENTE NAGUSIETAKO BAT BIHURTU DA.

Duela hamar urte baino gehixeago arte gastronomikoei eskainitako fakultate bat imajinatzea ia utopikotzat har zitekeen, edo, behintzat, ohiz kanpoko zerbait. Horixe izan zen, hain zuzen ere, Donostia inguruan elkartu zen lantalde batek egin zuena, gidoitik atera eta gastronomiaren balio-kate osoan oinarritutako eredu akademiko baten aldeko apustua eginda. Idoia Calleja lantalde horretan zegoen, eta gaur egun Basque Culinary Center-kin lotura estua du. Urte hauetan

zentroak izan duen bilakaerari buruz hitz egin dugu berarekin.

Basque Culinary Center-FGastronomi Zientzien Fakultateak hamargarren urtebetetzea ospatuko du. Nola gogoratzen dituzu hasiera horiek? Sektore profesionaletik sortutako proiektua da, zehazki euskal sukaldarien eskaera bati erantzunez. Oso argi zuten gastronomiaren sektoreak sukaldaritzak baino askoz gehiago hartzen duela bere baitan, eta ezagutza osoago batean sakontzeko beharra aldarrikatzen zuten. Horrela sortu zen Basque Culinary Center, gastronomiaren arloan prestakuntza berritzaile eta eraldatzailea ezartzeko helburuarekin.

Hortik aurrera, lehenik eta behin eraikinaren eraikuntza jarri zen abian, eta, ondoren, profesionalen prestakuntzarako Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteen Graduaren ikasketa plana garatuz.

Oso hilabete bereziak izan ziren, eta aldi berean oso politak.

Martxan jartzen ari zen bitartean, zein zen zentroaren helburu nagusia? Hasiera-hasieratik argi genuen Basque Culinary Centerrek prestakuntza, ikerketa eta sustapenerako zentroa izan behar zuela. Fakultateak bere gain hartzen du prestakuntza lana, eta *BCC Innovation* zentro teknologikoaren bidez egiten da ikerketa. Azkenik, sektorea osorik ikusarazteko sustapen lan garrantzitsua egin genuela uste dut, eta hori guztia nazioarteko ikusmira argiarekin.

Orduan esan genezake gaur egun zentroak eragin nabarmena duela sektorean. Basque Culinary Center ikerketa gastronomikoaren proiektu aitzindaria bihurtu da. 10 urtetan nazioarteko erreferente bihurtu gara, proiektu asko martxan jarriz eta mugari garrantzitsuak lortuz; gastronomiako lehen gradua, zentro teknologiko bat abian jartzea, lehen doktoregoa. Uste dut sortu dugun jarduera guztiak balio izan duela mundu mailan gastronomia sektore estrategikoa dela proiektatzeko.

Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteen lehen Gradua abian jarritzen hasi zen guztia. Zer etorri da gero? Nik uste dut Basque Culinary Cente-



10 urte hauetan arlo akademikoan, ikerketan eta sektorearen sustapenean hazi gara bereziki”

ren lan egitea eguneroko erronka dela, eta gradua martxan jartzea bat gehiago izan zen. Aitzindariak garen, ideiak emateko aurrean orri zuri bat izatearen zorte handia izan dugu, eta hori oso erakargarria da. Eguneroko egiten diegu aurre erronkei, eta oraindik asko ditugu aurretik. Hezkuntzara bideratutako arlo gastronomikoan liderrak izaten jarraitu nahi dugu, eta norabide horretan lan egiten dugu. Hamar urte hauetan zehar, graduaz gain, 10 master ere jarri ditugu martxan, sektorerako eskaintza oso bat garatuz, jatetxeetatik hasi eta banaketara edo upeltegietara, prestakuntza espezifiko behar duten profil guztiei erantzuteko gai izan behar dugu. Horregatik, gastronomiaren balio-kate osoa osatzen duten profesionalentzako prestakuntza-planak egiten ari gara etengabe. Gaur egun, harro esan dezakegu Graduak bere hamargarren promozioa hartzen duela, baina askoz haratago joatea lortu dugu, eta etorkizunari begira, asmo handikoak izaten jarraitu behar dugu.

Eta izan al duzue gidari gisa erabili duzuen erreferenterik? Aitzindariak gara eta aurretik egin ez diren gauzak egin ditugu, baina etengabe ari gara ingurua behatzen eta proiektu berritzaileak bilatzen. Denbora horretan ideia berriak zituzten pertsonak hurbildu ziren hona, eta ideia ezberdinei forma eman genien beranduago, inaugurazioa baino lehen. Munduari irekitako zentroa gara. Mundu osoko pertsonen bisitak hartu ditugu, eta nazioarteko proiektuei esker ere asko bidaiatu dugu. Gastronomiako eragile guztiarekin harremanetan egon behar dugu, eta horrek ere inspirazio gisa balio digu.

Nazioarteko erreferente bihurtzea lortu badugu, gure espiritu ekintzailearen ondorio izan da hein handi batean. Era guztietako sare kolaboratiboak sortu ditugu, era guztietako profesionalak ezagutu ditugu eta toki ezberdinak bisitatu. Gure DNAn dugun espiritu berritzaileak garatu ditugun gauza txikiak beste zerbait bihurtzeko aukera ematen digu.

Zalantzarik gabe, 10 urte hauek oso biziak izan dira Basque Culinary Centerren. Nola definituko zenuke denbora horretan izandako bilakaera? Nik esango nuke hazkunde esponentziala bizi izan dugula. Urtero proiektu eta ekimen berriak gehitu ditugu, eskaintza eta ikasle kopurua handituz joan gara. Zentroko profesionalak ere gorakada handia izan dute, eta gero eta ikerketa proiektu gehiago egiten ditugu. Nik uste dut esparru guztietan hazi garela. Prestakuntza, ikasle kopuruak, prestakuntza-eskaintza, ikerketa eta proiektu edo ekintzailetza eta garapenari dagokionez etengabe hazi gara, eta sustapenari dagokionez, gastronomia sustatzeko hainbat ekimen jarri ditugu abian, besteak beste Basque Culinary World Prize. Horretaz gain, espazio fisikoetan ere hazi gara.



Sortu dugun jarduera guztiak gastronomiaren balio-katea mundu mailan proiektatzeko balio izan du”



Duela 10 urte hasi zen guztia eraikin honetan eta 2019an jarri genuen martxan LABE (Digital Gastronomy Lab), etorkizuneko gastronomia ikuspegi digitalean birpentsatzeko eta elkarrekin sortzeko berrikuntza-gune irekia. Orain erronka da beste urrats bat ematea eta nazioartean erreferentziatzeko ekosistema bat sortzea, talentu ekintzailea eta startupak erakarriko dituen. Helburu horren pean Goe (Gastronomy Open Ecosystem) argia ikusten du, sektorean balioa sortzea bilatzen duen espazio fisiko eta birtuala izango dena.

Etorkizunari begira, hazteko ideiarekin lanean jarraitzen dugu, eta, besteak beste, uste dugu deslokalizazioaren ideia posible dela, beste erakunde batzuekin egindako akordioengandik inguruan ere bizi izan dugun hazkundearen ondorioz.

Ekitaldi bereziren batekin ospatu duzue urteurrena? Noski, urtemugak merezi du. Urtea era guztietako ekitaldiz josita egon da, batez ere denbora honetan zehar gurekin egon diren pertsona eta erakunde guztiei eskerrak emateko. Irailaren 27an, Basque Culinary Centerrek atea ireki eta hamar urtera hain zuzen ere, ekitaldi hunkigarria ospatu genuen gure hamargarren urteurrena. Bertan erakunde publiko eta enpresetako ordezkariekin batera, baita Basque Culinary Centerreko sukaldari handi eta gastronomiako profesionalak batu genituen

'Gaitzen' proiektua burutu da

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK, ENPRESAGINTZAREKIN BATERA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BULTZATUTAKO PROIEKTUA KOORDINATU DU, INDUSTRIA SEKTOREKO ETE-EN BARNE EKINTZAILTZA SUSTATU ETA EZAGUTZA GARATZEKO HELBURUAREKIN.



'Gaitzen' proiektuaren ekitaldietako bat.

Goi Eskola Politeknikoa | 20-21 ikasturtean zehar garatu zen "Gaitzen" (Barne Ekintzailtza Eraikitzen Gipuzkoako Enpresetan) proiektua eta uztailan Gipuzkoako Foru Aldundian egindako saio batek eman zion bukaera lehen fase honi. Proiektuan lurraldeko sei enpresek hartu zuten parte; Caldería Zue, Zubiola, Ormola, Lazpiur, Soraluze eta grupo Bokadok hain zuzen, eta honen koordinazioa Goi Eskola Politeknikoaren esku egon da. Gauzak horrela, enpresa parte-hartzaile bakoitzean lan-talde ezberdinak eratu ziren, kontsultora eta beste eragile batzuek osaturik, konposizio hurrengoan izan zela; Ormolan HUB Advisory, MUE eta Goi Eskola Politeknikoa, Caldería Zuen HUB Advisory eta MGEP, Zubiolan B+I eta Goi Eskola Politeknikoa, Lazpiurren B+I eta MUE, Soraluzen LOOP eta Goi Eskola Politeknikoa eta Grupo Bokadon LOOP eta BIC Gipuzkoa.

Proiektuan zehar egindako pilotuek ezagutza eta metodologiak bateratzea ahalbidetu dute, emaitzak sei enpresa hauetan aplikatuz. Oro har, ondoriozta daiteke pilotuan parte hartu duten enpresek barne-ekintzailtza ereduak definitzea lortu dutela, horre-

tarako lehen urrats sistematikoak garatuz, hurrengo hilabeteetan finkatzen joango direnak. Hori dela eta, Goi Eskola Politeknikoaren lantaldeak proiektua ez du bukatutzat ematen, eta bigarren fase bat egiteko dirulaguntza eskaera egin zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, proiektuan parte hartu duen enpresa konkretu batekin. Enpresagintza, bestalde, proiektuan garatutako formakuntza alorra hainbat enpresetan zabaltzeko ekimenean dabil.

Bukaera ekitaldi berezia

Uztailan antolatu zen "Gaitzen" proiektuaren lehen faseari bukaera emateko ekitaldia. Bertan, alde batetik sei enpresa parte-hartzaileen lanari aitortza bat egin zitzaion, eta Mondragon Unibertsitateak ere jaso zuen koordinazio zein idazkaritza

teknikoan egindako lanaren errekonozimendua. Bestalde, partaide guztiei erakutsitako interesagatik eskerrak emateko ere balio izan zuen ekitaldiak, ikasketa prozesu partekatatu baten baitan Gipuzkoako enpresen barne ekintzailtza etorkizunera begira egonkortzeko egindako lanagatik.

Goi Eskola Politeknikoaren lantaldeak proiektua ez du bukatutzat ematen, eta bigarren fase bat egiteko dirulaguntza eskaera egin zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Community eta Demo Day Bilbao Berrikuntza Faktorian

LA COMUNIDAD DE MONDRAGON TEAM ACADEMY HA MONDRAGON TEAM ACADEMY KOMUNITATEAK COMMUNITY ETA DEMO DAY EGUNA ANTOLATU DU BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIAN.



Protagonistak Bilbao Berrikuntza Faktorian.

Empresagintza Fakultatea | Etengabe mugimenduan. Horrela dago beti MTA (Mondragon Team Academy) komunitatea. Mugimendu hori izan zen azaroaren 8an Bilbao Berrikuntza Faktorian Community eta Demo Day egunean ikusgai geratu zena.

Lehenengoari dagokionez, Bilbo, Irun, Oñati eta Valentziako laborategietako LEINNe eta team coach-ek parte hartu zuten, ekintzailtza proiektu ezberdinak aurkeztuz. Zoragarria izan zen talde ekintzaile ezberdinek ezagutza partekatatu eta konexio berriak sortzen ikustea. Eskerrik asko benetan, hau zuen etxea da.

Ongi etorri ekitaldia

Community Day-aren helburu nagusia LEINN graduan beraien ibilbidea hasten duten penguin eta panda berriei ongi etorria ematea izan zen. Horretarako, ekintza ezberdinak egin ziren. Alde batetik Bilboko itsasadarrean speed networking bat antolatu zen: nor zara? zeintzuk dira zure interesak? Has gaitzen lehen loturak egiten!

Bestalde, Berlinen lehen mailako Learning Journeyaren aurkezpena egin zen; Blaze, Khoda eta Tabia, esperientzia hau partekatzearren eskerrak zitzaizkien eta Bilbon ekintza hauekin jarraitzeko gonbitea luzatu zitzaion. Gainera, bulegoaren apainketa leihaketan, LEINNe, team worker eta Market Plazako team worker batez (Elena Carriedo) osatutako epaimahaiak ez zuen lana batera erraz izan. Legit-ek jaso zuen lehen saria eta Meraki-ri bere sormena errekonozitu zitzaion. Ekitaldia borobiltzeko Dock-en artista ezberdinekin Jam session bat antolatu zen, BBF-aren bizitzari musika jarritz.

Eta hurrengo helburua? BBF mailako Community Day bat antolatzea ondo legoke. Nola ikusten duzue?

Fagor Arrasate bidelagun, fabrikazio adimenduna eta industria 4.0

Goi Eskola Politeknikoa | Fagor Arrasatek eta Goi Eskola Politeknikoa lankidetzaren hitzarmena berritu dute, xafla estanzatzeko, prozesatzeko eta ebakitzeko sistemen fabrikazio adimendunerako teknologien garapena bultzatzeko. Mundu akademikoaren eta enpresa-munduaren arteko aliantza horren arrakastaren gakoa ikerketarako ezagutza-transferentzia da.

Fagor Arrasate kide den Koniker I+G unitatearen eta unibertsitatearen artean hitzarmen berria sinatu dute ahaleginak batzeko, elkarrekin ikerketa-proiektuak egin eta ezagutzak trukatzeko. Lankidetzak altzairuzko xafla, aluminioa eta material konposatuak eraldatzeko sistema adimendunak garatzea bultzatuko du, urruneko gainbegiratze-zerbitzuak barne dituela.

Lankidetzak Industria 4.0ren garapena azpimarratuko du, urruneko ikuskeraren eta datuak aztertzearen irtenbideekin. Era berean, sistema ziber-fisikoen inguruko ikerketa sustatuko da, Fagor Arrasateren produktuen eraginkortasuna, fidagarritasuna, sendotasuna, adimena, autonomia eta elkarreragin-prestazioak hobetzeko.



Lankidetzaren hitzarmena berritu dute.

Kolonbiako ordezkariak Mondragon Unibertsitatean jaso dute formazioa

2017AN KOLONBIAN HASITAKO BAKE-PROZESUAREN ONDORIOZ, LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIAK ETA UHU/UPVKO HEGOA NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUAK SORTUTAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTE. FORMAZIOAREN HELBURUA DA, BESTEAK BESTE, GERRILLARI OHIAK BERGIZARTERARTZEA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Kolonbiako Iparraldeko Cauca-ko etorritako 11 lagunek gure Fakultatea bisitatu dute, Estrategias de Intercooperación y Desarrollo Territorial Rural-Grupo Norte del Cauca (Colombia) programako prestakuntzaren zati bezala. Bi erakundeek bultzatzen dute programa hau: EHU/UPVKO Hegoak, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak eta Mondragon Unibertsitateko LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak.

Programaren helburua da nekazarien, indigenen eta afrikar ondorengoen nekazaritza-ekoizpeneko tokiko erakundeetako liderrak eta liderrak indartzea, FARC-EPko borrokalari ohiekin batera. Proiektua gauzatzen da Cauca iparraldeko bi landa-udalerritan. Egitasmo hau bultzatzen da gizarte-ekonomia solidarioaren eta komunitarioaren ikuspegi partekatutatik, genero-ikuspegia jorratzen du, eta belaunaldi desberdinen arteko integrazioa sustatzen du.

Egonaldi emankorra

Euskal Herrian egiten ari diren hiru aste-ko egonaldian, ordezkari kolonbiarrek



Kolonbiar taldea Euskal Herrira egindako bisitan.

bisitatuko dituzte hainbat euskal erakunde eta garapen agentzia (Lea Artibai, Urola Kosta, etab.), kooperatiba, gobernu kanpoko erakunde, ekonomia sozial solidario ekimen, sindikatu, OlatuKoop, KoopFabrika, Azaro Fundazioa, Aiaraldea Ekintzen Faktoria, eta abar.

Proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Garapenerako Euskal Agentziak finantzatzen du; aurtengoa da programa honen bigarren edizioa.

Berrikuntza, ekimena eta talentua sustatzeko hitzarmena



Laboral Kutxako Xabier Egibar, Vicente Atxarekin.

Mondragon Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak eta Laboral Kutxako zuzendari nagusi Xabier Egibarrek bi erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, erakundeek lehendik zuten jarduerari jarraipena eman eta beste lankidetzalero batzuk garatzeko. Lankidetzaren hitzarmen honen jarduketaren eremuak eta lan-ildoetako batzuk: berrikuntza, ekintzailtza eta talentua.

Berrikuntza Unitatearen eta Open Businessen jarduerak abiaraztea, berrikuntza-proiektuetan parte hartzea sustatzeko. Ikasleentzako erronkak eta BBF-Fintch-MUE, LK-MGEP ikasgela eta antzeko ekimenak abiaraztea ere bultzatuko da.

Ekintzailtza alorrari sendotasuna, inda-

ra eta jarraipena ematea.

Laboral Kutxaren hainbat arlotako proiektu eta behar zehatzei erantzuteko, eta arlo hori unibertsitateko ikasleekin lantzea.

Epe luzerako akordioa

Sinatutako hitzarmenak helburu argia du: egungo eta etorkizuneko esparruak (berrikuntza, ekintzailtza eta talentua) garatzeko hemendik aurrera hasiko diren ekintzak sustatzea eta zuzentzea. Horrez gain, bi erakundeek elkarlanean jardungo dute elkarren intereseko arloen inguruko ikerkuntzaren eta transferentziaren esparruetan. Helburu horietarako beharrezko ekintzak abian jartzeko, bi erakundeek beharrezko egitura eta langileak jarriko dituzte.

Ikasle eta langileentzat Arreta Psikologikorako Zerbitzua abian

DOAKOIA DEN ZERBITZU BERRI HAU ZUZENDUTA DAGO HUMANITATEA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKASLEEI ETA LANGILEEI.



Ikasle eta langile guztiei dago zuzenduta zerbitzua.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Arreta Psikologikorako Zerbitzua (APZ) jarri du abian Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Psikologo psikoterapeuta kolegiatuek gidatutako zerbitzuaren helburua da laguntza prebentiboa eskaintzea ikasle eta langileei. Lehen

mailako prebentzioari dagokionez, zerbitzuak eskainiko ditu testuinguru seguruetan garapen osasuntsu eta bideraturiko esperientzia desberdinak. Horren asmoa da, bidaidetza

prozesu baten bidez, ikasleen ongizatea bermatzea

Arriskuan dauden detekzioa

Bigarren mailako prebentzioari erreparatuta, APZk arriskuan egon daitezkeen ikasleen detekzioa egingo luke eta balorazio prozesu baten ostean beharrezkoa izanez gero, kanpoko Azken finean, proiektuaren xede nagusia da lehen mailako eta bigarren mailako ongizate bio-psiko-sozialerako prebentzioa egitea fakultateko ikasle eta langileei begira.

Banakako arreta

Zerbitzuak banakako arreta eskainiko du, eta horrez gain, talde prozesuak ere jarriko ditu abian. Azkenik, APZ-ak badu helburutzat arreta psikologikoari buruzko ikerketa eta aholkularitza.

Psikologo psikoterapeuta kolegiatuek gidatutako zerbitzuaren helburua da laguntza prebentiboa eskaintzea ikasle eta langileei.

DiManD proiektuak aurrera darrai

Goi Eskola Politeknikoa | EDiManD (Digital Manufacturing and Design-Innovative Training Network) proiektua Europako zortzi erakundek osatzen dute (Ikerketa, unibertsitateak eta enpresak), eta Goi Eskola Politeknikoaren gidaritzapean ari da garatzen.

Ikertzaile gazteen mugikortasuna sustatze asmoa duen proiektu bat da, COVID-19aren izurriteak oraindik hasiera fasean harrapatu zuena. Hala ere, zailtasun ezberdinak gainditu ondoren, proiektuak egonkortasuna eskuratu du eta abiadura jarraituan ari da aurrera egiten, testuinguru normaltasunera bueltatzen ari den heinean. Herrialdeen arteko mugikortasuna berraktibatu ondoren, Goi Eskola Politeknikoa nazioarteko hiru doktoregai hartzen ditu gaur egun, eta Ideko, Ulma Embedded Solutions edo MSI enpresetan ere egonaldiak egiten ari dira. Gainera, Indiatik datorren nazioarteko beste doktoregai batek ULMAn eginduen egonaldia modu birtualean, eta gauregun atzerrian dagoen arren, gaur laster Mondragon Unibertsitateara etortzeko asmoa du. Bestalde, nazioarteko egonaldiak planifikatzen ari dira Munich, Nottingham eta UNINOVA bezalako lekuetan, hilabete bat eta bi hilabete artekoak izango direnak. DiManD proiektuaren barruan egiten ari diren doktorego-tesiak Industry 4.0 testuinguruan kokatzen dira, batzuk informatikaren eta sistema ziberfisikoen ikuspegitik, eta beste

batzuk diseinuaren edo robotikaren ikuspegitik. Tesi horietatik eratorritako lehen argitalpen zientifikoak kongresu eta aldizkarietan aurkezten ari dira, eta, beraz, DiManD lehen emaitzak ematen ari da.

Industry 4.0-an sakontzen

Industry 4.0 edo laugarren industria iraultza eta industria adimentsua bezala ezagutzen den hori lana eta produkzio-baliabideak antolatzeko modu berri bat da.

Etorkizuneko adituak gaitzeko erronka nagusienetako bat hauek beharko dituzten diziplina anitzeko trebetasunak garatzea da, besteak beste fabrikazioa, informatika kontroleko eta datuen analisiko ingeniarietza, zibersegurtasuna edo gizakiaren eta makinaren arteko elkarreraginak. Hori dela eta, DiManD lanean ari da parte-hartzaileak 4.0 Industrian funtsezkoak diren hainbat ezagutza-arlotan prestatzeko, proiektuan parte hartze duen nazioarteko sarearen laguntza baliatuz. Zentzu honetan, doktoregai bakoitzak banakako prestakuntza jasotzen du, beharrezkoen arabera. Hala ere, sare osoari zuzendutako prestakuntza orokorra ere aurreikusten da, bai arlo teknikoan, zeharkako gaietan eta jabetza intelektuala, zientzia irekia, ikerketa edo ekintzailtza jasagarria, genero berdintasuna edo komunikatzeko gaitasuna bezalako zeharkako eskumenetan.



DiManD proiektuaren partaideak.

Ai Power eta Eywa Space aliatu sarera batu dira

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEA ETA Y VENTURE BUILDER BI HAUEK AKORDIOA SINATU DUTE STARTUP BERRIEN SORKUNTZARAKO, LEINN GRADUAREN INKUBAZIO ETA AZELERAZIO PROGRAMEN BARNE.



Bi erakundeetako agenteek startup berriak sortzeko akordioa sinatu dute.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak, bere ekintzailtza unitate Mondragon Team Academyren bitartez, eta adimen artifizialeko AI POWER eta EYWA venture builderrek startup berrien sorkuntzarako testuingurua garatzeko akordioa sinatu dute. Akordio hau Berrikuntza eta Lidergoaren LEINN Graduaren baitan lantzen diren inkubazio eta azelerazio programen testuinguruan kokatzen da.

Ai Powerrek startupari lehentasunetan fokua jartzen ahalbidetzen dioten zerbitzu zentralak eskaintzen ditu, behar duen merkatua eraikitzeko. Horretarako adimen artifizial aplikatuko kore bat erabiltzen da, potentzial globala duena.

Bestalde, Eywa Spacek negozio ideiak enpresa arrakastatsu bilakatzen ditu, ekintzailtzari atxikitzen zaizkion arriskuak gutxitzeko metodologia baten

bitartez. Horretarako, startup-ei AR / VR-an babes teknologiko integrala eskaintzen zaie, soluzio berriak garatu eta aurretiaz existitzen diren aktiboak transferitzeko.

Epe luzerako akordioa

Akordio hau 2020-21 ikasturtean martxan jarritako elkarlanaren fruitua da, bertan emaitza esanguratsuak izan zituzten venture building bateratuak garatu baitziren. Konkrétuki, programaren edizio bi antolatu ziren LEINN-en, Irun, Bilbo, Oñati eta Valentziako laborategietatik etorritako 100 ekintzaile inguru batuz. Bertan 100 negozio aukera aztertu ziren, eta hauetatik 9 startup atera, 5ek jada hasierako inbertsioari buelta eman diotelarik (500.000 euro lehen hilabeteetan). 2021-22 ikasturterako jarritako helburua jardun hau gainontzeko MTA laborategietara hedatzea da.

Gastronomia ekintzailtza Madrilen

BASQUE CULINARY CENTERREK "EMPRENDER EN GASTRONOMÍA: TALENTO + ACTITUD" JARDUNALDIA ANTOLATU ZUEN, MADRILGO MAHOU PATIOAN

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea |

Basque Culinary Centerrek gastronomía ekintzailtzarekin lotutako ekitaldi bat antolatu zuen joan den uztailearen 20an. Jardunaldiaren helburua Madrilgo merkatuan eta inguruetan sektoreko hainbat ekintzaile ezberdin elkartzeko eta azken aldiaren ziurgabetasunaren mende dagoen eremu batean sukaldaritza esperientziak partekatzea izan zen.

Covidaren krisialdia ez da eragozpena izan gastronomia 360ºko ikuspegiarekin sektorea dinamizatzeko ekimenak garatzen jarraitzeko. Kasu honetan jatetxeetako jabeek gain bestelako profilak ere izan dira kontuan, besteak beste "delivery" sektoretik produkzio edo banaketara, startups bitarteko digitalizazio proiektuak edo sektore gozoa ere kontuan izanik. Testuinguru honetan, gazte ekintzaileen perfil desberdinak ari dira merkatu gastronomikoa astintzen, eta hazkunde hau babesten duten agenteak ere hurbildu ziren Mahou Patiora, elkarriketa ezberdinen bitartez sektorearen oraina eta etorkizunari buruz eztabaidatuz.

Ordezkaritza zabala

Jardunaldiak hainbat agente ekintzaile batu zituen, besteak beste Hotel & Gastro Cañitas Maite, Alexx Perez Albuquerque, TresPorCuatro, Pastelería Fátima Gismero, edo Maybein.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Mahou San Miguel, Gastroeconomy eta Culinary Action!-ekin batera antolatutako jardunaldiak sektorean sortzen ari diren negozio berrien tipologia sakonago ezagutzea ahalbidetu zuen.



Jardunaldiak gastronomiako profesionalak bildu zituen.

942 egresatuk diplomak jaso dituzte

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK 2019 ETA 2020KO PROMOZIOETAKO GRADU, MASTER ETA DOKTORETZA DIPLOMAK BANATZEKO BI EKITALDI JARRAIAN ANTOLATU ZITUEN DONOSTIAKO KURSAAL ARETOAN



Diplomak emateko ekitaldia Kursaallean.

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak 2019 eta 2020an gradu, master eta doktoretzetan egresatutako ikasleei diplomak banatzeko bi ekitaldi jarraitu antolatu zituen joan den urriaren 14 eta 15ean. COVID-19aren pandemia dela eta 942 ikaslek ezin izan dute orain arte beraien diploma jaso, eta bertaratutakoen kopurua altua dela eta, ekitaldia bi egunetan banatu zen. Moduhonetan, ikasleez gain familia eta lagunak ere bertaratzeko aukera izan zuten, eta horrez gain ekitaldian streaming bitartez jarraitu ahal izan zen Goi Eskola Politeknikoaren Youtube kanalean.

Lehen jardunaldia 2019 eta 2020an gradu ikasketak bukatu zituzten ikasleentzat zuzendua izan zen, eta konkretuki 569 ikasle bertaratu ziren guztira, 269 2019ko promozio-koak eta 200 2020koak. Bestalde, bigarren jardunaldia master ikaske-

tak bukatu zituzten 338 ikasleentzat (150 2019an eta 188 2020an) eta 35 doktore berrientzat zuzendua egon zen.

Partaidetza zabala

Urriaren 14 eta 15ean antolatutako ekitaldiek Mondragon Unibertsitateko Errektore Vicente Atxa, Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile orokor Carlos García eta Eskolako koordinatzaile akademiko Nekane Errastiren presentzia izan zuten. Horrez gain, ostegunean, urriaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Politika Zuzendari eta Unibertsitate Koordinatzaile den Miren Artarazek ere parte hartu zuen. Diploma banaketan zehar Mondragon Unibertsitatearekin lotura duen pertsona batek parte hartu zuen, egresatuei mezu motibatzaile bat bidaltzeko helburuarekin. Lehen egunean gonbidatua Txomin Garcia izan zen, Laboral Kutxako presidentea, eta bigarrean Iñigo Lazkanotegi, Teknialiako proiektu koordinatzailea.

Egresatuek dute hitza

Diploma banaketa ekitaldiak une gogoangarri ugari utzi zituen, bereziki urte luzeak fakultatean eman dituzten horien eskutik. Hauek bilakatu ziren ekitaldiaren protagonista nagusiak, beraien esperientzia kontatzeko aukera izan zutelarik. Diseinu Industrialean doktore bilakatu den Maitane Mazmelak adibidez doinua jarri nahi izan zion unibertsitateko bizipenei. Bertsotan azaldu nahi izan zuen tesia eta familia bizimodua uztartzearen abentura, eta nola ama eta ikerlariaren paperak bat egin duten: "Hiru urte hiru ume, tesia eta bi nene".

Ikasgelatik haragoko uneak gogoan

Joseba Gorospe eta Ibai Irigoyen Ingeniaritza Informatikoa eta Telekomunikazioetan graduatuak dira, eta gradu bikoitzeko azken promozioa ordezkatu zuten oholtzan. Beraien esanetan, unibertsitatean emandako bost urteak guztiz emankorrek izan dira, eta gradu bikoitza ikasteak eskainitako aukerak nabarmendu zituzten, batez ere pertsona ezberdinak ezagutzeko aukera izana eskertuz. "Urterik urte pintxopoteetako taldea handitzen joan gara", ikasketez gain, unibertsitatean beste kontu batzuetarako denbora balioan jarriz. Hala ere, onartu zuten "zenbait gaupasa" egin dituztela buruan unibertsitate kontuak dituztela, "bereziki PBLak entregatzeko sasoian".

Egresatu hauek gain, beste asko izan ziren oholtzara igo zirenak, eta oraindik gehiago ekitaldi bikoitz berezi hauetan ondo merezitako diplomak jaso zituztenak. Guztiak bilakatu ziren protagonista, eta orain aurrean duten etapa berri honi aurre egiteko gogoia eta grina erakutsi zuten.

La Gresca, ikasle ohiek bultzatutako gastronomia proiektu jasangarria

LA GRESCA BASQUE CULINARY CENTERREKO LAU IKASLE OHIK LA GRESCA IREKI DUTE, DONOSTIAN DAGOEN LOKAL GASTRONOMIKO BAT. PROIEKTU JASANGARRI HONEK BEZEROAK HEZI ETA JAN EDANAK BALIOAN JARTZEA DU HELBURU.

Basque Culinary Center-Gastronomia Zientzien Fakultatea | Zer da La Gresca? La Gresca edozein tokitan aurkitzen ez diren gastronomia produktuak eskaintzen dituen proiektu bat da, ahal den heinean Euskal Herriko denboraldiko produktuak eskaintzen dituen, hemen aurkitu ezin daitezkeen salbuespen batzuek gain.

Modu honetan, bezeroa gauza ezberdinak probatzen hezi nahi dugu, eta balioan jarri jaten duguna eta honen jatorria.

Zeren bila joan zineten Basque Culinary Center-era? Zer aurkitu



Lau ekintzaileak.

zenuten bertan? Guztiontzat sorpresa atsegin bat izan zen. Danielek aurretiaz Sukaldaritza Zuzendaritza ikasia zuen, baina Ekintzaile eta Berrikuntzaren aldeko hautua egin zuen. Maitek Haur Hezkuntza eta Psikologia zituen ikasiak, eta ordurako ez zuen desberdintasunik ikusten legatz eta bakailao baten artean, baina Abangoardian espezializatu zen. Norak Sukaldaritza Zuzendaritza ikasi zuen, baina berak ere Ekintzailearen adarraren aldeko hautua egin zuen. Azkenik, Didacek txikitatik sukaldaria izan nahi zuen.

Esperientzia horretatik zer nabarmenduko? Irakasleen eta talde guztiaren gertutasunarekin. Gainera, fakultatea isolatua dago, eta horrek harremanak estutzea laguntzen du..

Eta nondik La Gresca sortzeko ideia? Laurok graduatu ginela ospatzeko elkartu ginen. Gutariko bakoitzak ideia bat zuen buruan, baina bapatean ekintzailetzarako dirulaguntzaren gaineko informazioa jaso genuen eta ideia martxan jarri genuen.

Nola lagundu zuen BCC-k La Gresca martxan jartzen? Ekonomikoki lagundu ziguten eta zenbait tutoretza argigarri eskaini. Guzti horrekin lanean hasteko motibazioa piztu zitzaigun.

Garai zail batean abiatu zarete. Zer moduz? Lokalak bi terraza ditu, eta murrizketak lasaitzeko aldi batzuk irekitzean, bezeroek oso ondo erantzun dute.

Zer aholku emango zenukete negozio gastronomico bat abian jarri nahi duenari? Inolako presarik ez izatea. Pausuak eta helburuak argi badaude, hauek erritmo egokian egosi behar diralos.

'Gazteak mugitzen dira!'

ELKARLAN PROIEKTUAREN AURKEZPEN EKITALDIAN PARTE HARTU ZUTEN MUGIKORTASUNEN ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO GIPUZKOAKO FODU DIPUTATUAK, ELUSKA RENEDO-ILLARREGI GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ZUZENDARIAK ETA NAGORE IPIÑAK MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO DEKANOAK



Aretxabaletako campusean egin zen proiektuaren aurkezpena.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Rafaela Romero Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako lehendakari, Eluska Renedo-Illarregi Agintaritzako zuzendariarekin eta Nagore Ipiña Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok, "Gazteak mugitzen dira" kanpaina aurkeztu zuten, irailaren 23an, Aretxabaletako campusean.

Zehaztutako elkarlanaren ondorioz, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Ikasleek «Gazteak mugitzen dira!» lehiaketan jasotako lanen bilduma eta sintesi lana egingo dituzte. Bilduma horiek bi euskarritan egin beharko dituzte ikasleek: ikus-entzunezkoak eta kartelak. Lan horiek, geroago, erabiliko dira lehiaketaren berri emateko publizitate kanpainan.

Gazteak helburu

Romerok adierazi zuenez, lehiaketaren eta unibertsitatearekin bultzatutako elkarlanaren helburua bikoitza da: "Gazteen konplizitatea lortu nahi dugu mugikortasun jasangarriaren inguruan, eta haiek izan daitezela garraio publikoa, bizikletaren erabi-

lera eta oinezkoentzako bideak ikuspegi baliotsutik sustatzen lagunduko digutenak".

Bestalde, Gipuzkoako Garraio Agintaritzako zuzendari Eluska Renedo-Illarregi adierazi duenez, "Gipuzkoako Garraio Agintaritzak garraio publikoaren erabilera bultzatzen lan egiten du fronte guztietatik, MUGIren bidez eta Gipuzkoako operadore integratu guztiarekin lankidetzan. Alde horretatik, gazteak dira gazteak dira MUGI txartelaren preskriptore onenak gure sare sozialetan, gure fandom dira, eta haiekin hitz egin nahi dugu etorkizun horri buruz. Hori da ekimen honen helburua".

Nagore Ipiñak, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok, proiektuan parte hartzeko gonbidapena eskertu du, eta gaineratu duenez, "lankidetzaren guztiz bat dator Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko graduarekin defendatzen dituen balioekin: sormena eta gizarte-konpromisoa bateratzea. Kasu honetan, mugikortasun jasangarria bultzatzeko konpromisoa; oso gai garrantzitsua eta, gainera, ikasleen mundutik oso hurbil dagoena".

Neurri berriekin jarduera fisikoa sustatzen

KIROL ZERBITZUAK EGOERA EZBERDINEN AURREAN JARDUERA FISIKOAK JARRAI DEZAN BALIABIDE EZBERDINAK GARATU DITU.



Jarduera fisikoak gure eguneroko bizitzan garrantzia handia du.

Kirola | Azken hilabeteetan bizi izan dugun pandemia egoerak zenbait gauza utzi ditu agerian, besteak beste, jarduera fisikoak gure eguneroko bizitzan duen garrantzia izugarria eta egoera berrietara moldatzeko dugun gaitasuna.

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuaren jarduera ere bizitzen ari garen garai honen ispilu garbia izan da eta, ondorioz, hainbat kirol ekintza momentuko neurrietara moldatu dira. Helburu nagusia unibertsitateko ikasle eta langileek jarduera fisikoaz gozatzeko aukera ugari izatea izan da. Horretarako, gorago aipatu bezala, ordura arte barneratuta genituen ohitura osasuntsuak aldatzeko beharra izan dugu eta ariketa fisikoa beste nolabait egiteko makina bat proposamen aktibo izan dira sarean. Hain zuzen ere, Kirol Zerbitzutik etxealdi garaian adibidez, bakarka edota ingurukoekin egiteko zuzeneko saioak eraman ziren aurrera, hala nola, indar, luzaketa eta mugikortasun ariketak. Gainera, kirol alorreko plataformek izan duten hazkundea aprobetxatuz eta jarduerak modu birtualean partekatuz, Mondragon Unibertsitateko Strava komunitatea sortu dugu.

Errealitate berriari egokituz

Oraindik ere, moldaketa hauek egiten jarraitzen dugu eta azkenaldian dinamizatutako ikastaro eta txapelketek aldaketa batzuk jasan dituzte. Urrian ospatutako Espainiako Kirol Txapelketetan, adibidez, COVID-19aren aurkako neurri zorrotzak bete behar izan ziren, honek guztiak dakartzan zailtasunekin. Txapelketekin jarraituz, egun martxan dauden Mondragon Unibertsitateko Txapelketak eta honen jarraian jokatu diren Euskal Autonomia Erkidegoko Txapelketetan ere aldaketa nabarmenak izan dira. Eusko Jaurlaritzak ezarritako ezaugarriak kontuan hartuta, kontaktu fisiko gabeko eta bakarkako jokamoldeak bermatuz, indoor modalitateko korrikako, bizikletako eta arrauneko probaz osatutako lehiaketa ospatu da.

Honek guztiak agerian uzten du, gauza jakina den arren, jarduera fisikoak gure eguneroko bizitzako zenbait esparrutan duen esangura handia. Hori horrela izanik, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak egiten jarraituko du, egoera berriei egokituz eta gure ikasle zein langileei ahalik eta eskaintza oparoena eskainiz.

We 4 all!

MONDRAGON TEAM ACADEMY-N GIZARTE EKINTZAILTZARA BIDERATUTAKO WE 4 ALL PROGRAMAREN LEHEN EDIZIOA MARTXAN JARRI DA

Enpresagintza Fakultatea | We 4 All laborategi ezberdinetako 21 leinerr jaso zituen programa bat da, Oñatin antolatu zena urriaren 27, 28 eta 29an.

Lehen modulu hau migrazioari buruzkoa izan da, eta honi buruz aritzeko HOTZ Oñati, SMH (Salvamento Marítimo Humanitario) AITA MARI, CEAR (Comisión Española de ayuda al Refugiado) eta EREI (Elkartasunerako Elkarte) bezalako erakundeak hurbildu ziren. Hauek beraien esperientzia partekatu eta leinerr-ei irtenbideak bilatzeko erronkak planteatu zizkien.

Nabarmentzeko ekintzak

- AITA MARI itsasontziaekin konexioa (Mijangos eta Oscar Aita MARIren presidente eta kapitaina) Siziliako Trapani portuan, 105 pertsonaren erreskate bat eta gero.
- YADULArekin konexioa, unibertsitate ikasle gazte bat LESBOS-eko errufixatu esparru batean migrazio prozesu bat bizitzen ari dena.
- Elkartean afaria jardunaldian parte hartu zuten pertsonekin.
- MTA Oñati Rockin Lab-en bi gau igarotzeko kanpamendua montatzea lo saku eta esterekin.

Programa honek beste hiru modulo izango ditu, Espainian zehar garatuko direnak, kontzientziatu, enpatizatu eta gai ezberdinak errotik lantzeko helburuarekin.

Hurrengo geltokia, LEINN taldeak erabakitzen duena!

Arizmendiarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

“Gizaki praktiko eta kontsekuenteak izateko, justizia eta ongia nagusitzearen alde lan egingo dugu, eta horretarako ez zaigu axola izango ahalegin horretan zein datorren gurekin bat” (Gogoetak 324 orrialdea)

Azaroa

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ **CURSO EXPERTO LOGÍSTICA INTEGRAL**
26-nov-2021
- ▶ **SEMINARIO, FORO CASOS REALES EN LA IMPLANTACIÓN DE UN SISTEMA DE GESTIÓN DE PROYECTOS ÁGIL. BENEFICIOS Y DIFICULTADES.** 23-nov-2021
- ▶ **SEMINARIO, FORO SEMINARIO PRESENTACIÓN DEL CURSO AVANZADO EN GESTIÓN INDUSTRIAL**
25-nov-2021
- ▶ **ABIERTO DESIGN FAKTORIA 2021. EL DISEÑO Y SUS INTERSECCIONES**
24-nov-2021

Enero

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN CIBERSEGURIDAD INDUSTRIAL (ONLINE)**
14-ene-2022
- ▶ **ABIERTO AVANZADO CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN GESTIÓN INDUSTRIAL (GOIERRI)** 16-feb-22
- ▶ **CURSO PROFESIONALIZADOR DE LANBIDE FABRICACIÓN DE MOLDES DE PIEZAS POLIMÉRICAS Y DE ALEACIONES LIGERAS (FMEMO411)** 17-ene-2022
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN EL ESQUEMA NACIONAL DE SEGURIDAD (2ª EDICIÓN)** 17-ene-2022
- ▶ **CURSO EXPERTO UNIVERSITARIO EN DATA SCIENCE, DESDE LA INDUSTRIA, HASTA LA SILVER ECONOMY** 21-ene-2022

Febrero

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ **ABIERTO AVANZADO CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN GESTIÓN DE PROYECTOS** 1-feb-2022
- ▶ **CURSO PROFESIONALIZADOR DE LANBIDE MECANIZADO POR ARRANQUE DE VIRUTA (FMEHO109)** 7-feb-2022
- ▶ **CURSO EXPERTO EN TRANSFORMACIÓN DIGITAL EN EMPRESAS INDUSTRIALES**
9-feb-2022
- ▶ **MÁSTER EN DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN (XXX EDICIÓN) /** 1-feb-2022

- ▶ **ABIERTO AVANZADO PROGRAMA PARA LA CERTIFICACIÓN PMP® - PMP IS A REGISTERED MARK OF THE PROJECT MANAGEMENT INSTITUTE INC.**
18-feb-2022
- ▶ **CURSO EXPERTO EN GESTIÓN DE PROYECTOS** 23-feb-2022
- ▶ **MÁSTER EXECUTIVE EN LOGÍSTICA INTEGRAL Y COMPRAS. SUPPLY CHAIN MANAGEMENT/** 25-feb-2022

Marzo

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ **ABIERTO AVANZADO CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN GESTIÓN DE MANTENIMIENTO (XX EDICIÓN)**
2-mar-2022
- ▶ **CURSO EXPERTO EXPERTO EN PROGRAMAS DE MEJORA CONTINUA LEAN-SIX SIGMA. NIVEL BLACK BELT**
8-mar-2022
- ▶ **CURSO PROFESIONALIZADOR DE LANBIDE DESARROLLO DE PROYECTOS DE SISTEMAS DE AUTOMATIZACIÓN INDUSTRIAL (ELEM0110)** 28-feb-2022

GRADOS

www.mondragon.edu/es/grados-universitarios

MÁSTERES UNIVERSITARIOS

<https://www.mondragon.edu/es/masteres-universitarios>

FORMACION PARA PROFESIONALES

www.mondragon.edu/cursos/es

ATE IREKIAK

Izen ematea: www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA

2021-12-11 BILBAO AS FABRIK 11:00
2021-12-11 OÑATI 11:00
2021-12-18 BIDASOA 11:00
2022-01-29 BILBAO AS FABRIK 11:00
2022-02-05 OÑATI 11:00
2022-02-12 BIDASOA 11:00
2022-02-19 BILBAO AS FABRIK 11:00
2022-03-05 OÑATI 11:00
2022-03-12 BIDASOA 11:00

BUSINESS DATA ANALYTICS

2021-12-18 BILBAO AS FABRIK 11:00
2022-02-05 BILBAO AS FABRIK 11:00
2022-03-05 BILBAO AS FABRIK 11:00
2022-04-02 BILBAO AS FABRIK 11:00

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA

2021-12-11 BIDASOA 11:00
2021-12-11 BILBAO BBF 11:00
2021-12-11 OÑATI 11:00
2021-12-18 MADRID 10:30
2021-12-18 BARCELONA 10:30
2022-01-15 BILBAO BBF 11:00
2022-01-15 BIDASOA 11:00
2022-01-22 MADRID 10:30
2022-01-22 OÑATI 11:00
2022-01-29 BARCELONA 10:30
2022-02-17 BILBAO BBF 17:30
2022-02-19 BIDASOA 11:00
2022-02-26 OÑATI 11:00
2022-03-12 MADRID 10:30
2022-03-12 BARCELONA 10:30
2022-03-17 BILBAO BBF 17:30
2022-03-19 BIDASOA 11:00
2022-03-24 OÑATI 17:30

INGENIARITZA BIOMEDIKOA

2022-02-08 ARRASATE 18:00
2022-03-26 ARRASATE 11:00

EKOTEKNOLOGIA INDUSTRIAL ETAN INGENIARITZA

2022-02-08 ORONA IDEO 18:00
2022-04-02 ORONA IDEO 11:00

ENERGIAREN INGENIARITZA

2022-02-08 ORONA IDEO 18:00
FISIKA ETA MATEMATIKA INGENIARITZA
2022-03-26 BILBAO AS FABRIK 11:15
INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INGENIARITZA

2022-02-08 ARRASATE 18:00
2022-03-26 ARRASATE 11:00

INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENKO INGENIARITZA

2022-02-09 ARRASATE 18:00

INDUSTRIA ELEKTRONIKAKO INGENIARITZA

2022-02-08 ARRASATE 18:00
2022-03-26 ARRASATE 11:00

INFORMATIKA INGENIARITZA

2022-02-09 ARRASATE 18:00

INGENIARITZA MEKATRONIKOA

2022-02-09 BILBAO AS FABRIK 18:00
2022-02-15 ARRASATE 18:00
2022-03-26 BILBAO AS FABRIK 11:00

MEKANIKAKO INGENIARITZA

2022-02-09 GOIERRI 18:00
2022-02-15 ARRASATE 18:00
2022-03-26 ARRASATE 11:00

HAUR HEZKUNTZA

2022-01-15 ESKORIATZA 11:00
2022-02-26 ESKORIATZA 11:00
2022-03-19 ESKORIATZA 11:00

HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK

2022-01-15 BILBAO AS FABRIK 11:15
2022-02-26 BILBAO AS FABRIK 11:15
2022-03-19 BILBAO AS FABRIK 11:15

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

2022-01-15 ARETXABALETA 11:00
2022-02-26 ARETXABALETA 11:00

BASQUE CULINARY CENTER

2021-12-11 DONOSTIA BBC 10:30
2022-02-12 DONOSTIA BBC 16:00
2022-03-05 DONOSTIA BBC 10:30
2022-04-02 DONOSTIA BBC 16:00
2022-05-07 DONOSTIA BBC 10:30

Badakizu zer den **FLOW**AREKIN ORDAINTZEA?

Zure bizimoduarekin ongien datorren ordainbidea aukera dezakezu LABORAL Kutxan. Orain, mugikorrarekin, eroso eta seguru bete eta ordaindu ahal izango dituzu buruan darabiltzazun milioika planak.

TXARTELA

Edozein erosketa ordaintzeko establezimendu fisikoetan edo online.

MUGIKORDAINKETA

Mugikorra da zure txartela. Nahikoa da saltokiko terminalera hurbiltzea.

BIZUM

Dirua itzuli edo bidaltzeko, edo lagunen artean, familian eta lanean ordainketak egiteko.



LABORAL
kutxa



LK Pay



bizum

